

Kataluniako gerra-birtuala erreferendum egunaren aurretik hasi zen eta dataren beraren laburdurak 1-O (*un d'octubre*) profetizatu antzera, bat eta zeroen lengoaia digitalean narra daitezke telesailaren kapituluak. *Govern*-ak webgune eta mugikorrerako aplikazio bitartez argitaratu zituen bozkatzeko argibideak, Estatuak paperezko kartel eta propagandak atzeman ostean. Webgunea Kataluniatik atzitzea galarazi zutenean, [ziberpunk eleberri](#) fantastikoenean ere aurreikusi ez bezala, *proxy* bat (atzerriko ordenagailu baterako lotura) erabiltzea proposatu zuen *president*-ak herritarrek non bozkatu ezagutzeko.

Izan ere, sareetakoak izan zuen ordutik fantastikotik *Star Wars (Izarretako Gerra)* balitz bezala. *.cat* webgune *Klonen Eraso* eta *Inperioaren Kontraerasoa* teknikarien atxiloketa, webgune zein aplikazioen ([Google](#)-ren konplizitatea tarteko) itxiera eta Telekomunikazio eta Informazio Teknologien Zentroaren okupazioarekin. *Mehatxu Mamua* ere ez zen falta izan, seguraski kondairaren pelikula eskasena: [ElPais](#)-ek hacker errusiarrak erreferendumaren aldeko berriak sare sozialetan robot bitartez zabaltzen ari zirela salatu zuen. *Itxaropen Berriak* errolda elektronikoko unibertsalaren itxura hartu zuen, zeinak Interneteko zerbitzu (adib., Amazon) batetik bestera salto egiten zuen hiperespazioan zibererasoetatik ihesi (tartean Internet hornitzaileen eteteak edo [Forocoches](#)-ek zabalduetako DDoS atake deialdiak). Joda Assange-ek bitartean “sareen boterea zuekin bedi” zioen mezu interrestelarrean.

Edonola, sareen beste aldean, Kataluniakoari *streaming* bidez ikusteko pornografia usaina dario, kontsumo azkarrerako idatzitako [Izarretako Gerra](#)-rena. Larru-jotze postura ezinezkoena, non bataren bortxa eta bestearen orgasmoa bizkarrez-bizkar datzaten. *Buffering* etete askorekin. Euskal Herritik ere kexua etxetik atera gabe azaltzeko aukera izan dugu, maindire izerdituetatik desitsatsi gabe logelatik bertatik pantailari begira lapikoari kolpatuta. Garaien erretratu onanista. *Darth* Rajoy, Puigdemont *Skywalker*, *Jar-Jar* Urkullu eta enparauek biluztu eta antzetzuko dute bakoitzaren audientzia handienari zuzendutako gidoia. Erritmo honetan *Netflix*ek ordezkatu du Europako Batasuna.

## Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)